


# PIRAMIDEA-1

## etxeko zainketa-5



Familia bat zarete. Zuetako baten urtebetetzea da. Ospatzeko festa prestatzen ari zarete.

Zuen keinuak ikusita, ikaskideek istorio hau kontatu beharko dute urratsez urrats:

1. Bik opariak erosten dituzue: jertse lodia, komiki bat eta ordenagailurako jolas berri bat.
2. Bik ogitartekoak prestatzen dituzue: urdaiazpikoa eta gazta, txorizoa eta txokolatea.
3. Bi musika prestatzen ari zarete: euskal musika, rocka eta musika latinoa.
4. Bik tarta egiten ari zarete. Arrautzak, azukrea eta irina nahastu, labean sartu, ondo egin eta atera.
5. Azkenik, batek kandelak piztu, guztiok zorionak kantatu eta berak kandelak itzaltzen ditu.

saio berezia  
1.UD-ZAINKETA